62 JAZZALDIA

62. JAZZALDIAN JOKO DUTEN TOKIKO TALDEEN HAUTAKETAN PARTE HARTZEKO OINARRIAK

1. 62. Jazzaldiak tokiko 10 jazz talde sartzeko asmoa du 2027ko uztailean garatuko den programazioan, uztailaren 21etik 25era arte, hain zuzen.

2. Horretarako, hamar talde hautatzeko prozesua irekitzen da aurkeztu nahi duten jazz talde guztientzat. Talde horiek EAEn, Nafarroan edo Iparraldean jaio edo bizi diren musikariz osatuak egon beharko dute. Onartuko da talde bakoitzeko kideen %50 gehienera baldintza horiek betetzen ez dituztenak izatea. Honen inguruko zalantza edo erreklamazioren bat sortuko balitz, eskatutakoa frogatzen duen agiri ofizialen bat eskatuko da (NAN, errolda agiria, esandako lurraldeetako musika ikastetxeren bateko matrikula ziurtagiria, etab…).

3. 62. Jazzaldian parte hartu nahi duten taldeek gure webguneko eskaera orria bete beharko dute (www.jazzaldia.eus) 2026ko azaroaren 20aren 14:00ak baino lehen.

> 3.1 Estudioan edo zuzenean grabatutako musika: taldeek gutxienez hiru audio pieza igorri beharko dituzte (bideorik ez), piezen izenburua eta egilea edo egileak adieraziz. Musika modu digitalean (Dropbox, Google Drive, Wetransfer edo Spotify) edo formatu fisikoan (CD edo pendrive) bidali ahal izango da. Formatu fisikoetarako helbidea: Victoria Eugenia Antzokia, Erregina Erregeordea, 8 (5. pisua), 20003 Donostia.

4. Jasotzen diren proposamen guztien artean, 62. Jazzaldiaren antolakuntzak 15 talde hautatuko ditu, aurkeztutako musikaren kalitatea eta Jazzaldiaren programazio estilora zenbateraino egokitzen diren kontuan hartuta.

5. Hamabost talde horiek Donostiako klub eta lokaletan joko dute, oraindik izendatu gabeko datetan –bat eguneko–, 2027aren urtarriletik martxora bitartean.

JAZZALDIA
Erregina Erregeordea, 8 - 20003 Donostia / San Sebastián
T. (0034) 943 481 900 prensajazz@donostia.eus
www.jazzaldia.eus

62 JAZZALDIA

6. Taldeko kideak, hasierako eskaeran aurkeztutakoak, ezingo dira ordeztu, Jazzaldiaren antolakuntzak berariaz baimenduta ez bada.

7. Esandako lokaletan, taldeek eskura izango dituzte, emanaldiaren egunerako, pianoa eta soinu tresneria. Emanaldian erabili behar dituzten gainerako instrumentuak taldeak berak ekarri beharko ditu.

8. Hautaketa prozesu honetako parte hartzea ez da ordainduko, baina gastuak orekatzeko, 360 euroko kopurua jasoko dute taldeek.

9. Kontzertuetara doazen ikus-entzuleek bozkatu ahal izango dute emanaldia bakoitza puntuatzeko. Aurreko fase honetan parte hartuko duten 15 taldeen artean ikus-entzuleek egindako bozketetan puntuazio handiena duten 10 taldeak izango dira sailkatuak; 10 talde horiek izango dira, azkenean, 62. Jazzaldiko programazioan sartuko direnak.

10. 62. Jazzaldian joko duten 10 talde horiek, aldez aurretik faktura egin ondoren, 170 euro gordin jasoko dituzte taldekide bakoitzeko eta guztira gehienez 1.700 € talde bakoitzeko.

11. Ez hautaketa prozesuko joaldiek ez eta 62. Jazzaldian eskainiko direnek ez dute, inolaz ere, lehiaketa izaerarik izango.

12. 62. Jazzaldiaren antolakuntzak hartuko ditu erabakiak, era apelaezinean, oinarri hauen aplikazioari buruzko edozein erreklamazio edo desadostasun sortzen bada.

13. Eskaerak aurkezteak oinarri hauek onartzen direla esan nahi du.

JAZZALDIA
Erregina Erregeordea, 8 - 20003 Donostia / San Sebastián
T. (0034) 943 481 900 prensajazz@donostia.eus
www.jazzaldia.eus